

Alkarbidek –Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, merkataritza eta ostalariengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

“EUSKARA, ESKAITZARIK ONENA” MERKATARITZAN ETA OSTALARITZAN EUSKARA SUSTATZEKO KANPAINA.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Merkataritzan euskara sustatzea helburu duten hainbat egitasmo garatu dira azken urteotan Bizkaiko hainbat udalerritan, besteak beste, horma-irudiak eta erosketak apuntatzeko libretatxoak.

Egitasmo horiek izandako arrakasta ikusita, **Euskara, eskaintzarik onena!** izena daraman egitasmo orokorragoa garatu da. Proiektua bi zatitan landu da: lehenengoan establezimenduetan banatzeko kartelak egin ziren; eta bigarrenean kartel horiek eta merkatariek beraien eguneroko lanean erabil ditzaketen beste hainbat baliabide biltzen dituen CDa argitaratu da.

Leloa

Euskara, eskaintzarik onena

Helburua

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako egitasmo honen helburu nagusia da merkataritza eta ostalarien artean euskararen erabilera sustatzea horretarako baliabideak eskainiz.

Parte-hartzaileak

Bizkaiko **16 udal** eta **2 mankomunitate**. Guztira, honako **29 udalerrri** hauek:

Abanto-Zierbena • Alonsotegi • Balmaseda • Berriz • Durango • **Enkarterri** • Getxo • Gordexola • Igorre • Lekeitio • Lemoa • Markina-Xemein • Muskiz • Ondarroa • Ortuella • Sestao • **Uribe Kosta** • Zaldibar

Batzuek CDa eta kartelak inprimatuta eskatu dituzte, beste batzuek, aldiz, CDa edo kartelak baino ez.

Hartzaileak

Kanpainaren sustatzaile diren udalerrietako merkatariak eta ostalariak.

Kanpainaren edukiak

Kanpainaren euskarri nagusiak hauek dira:

- **Kartelak:** Merkatarietara lana errazte aldera, udalerrri batzuek paperezko euskarriak ere banatzea erabaki zuten. Kartel horiek orokorrak eta merkataritzan gehien erabiltzen direnak dira. Guztira, 6.700 kartel inguru banatu dira.

Merkatariek beraiek nahi dituzten kartel estandarrak eta diseinu bera duten kartel mutuak (nahi duten testua sartzeko) erabili ahal izango dituzte.

- **CDa:** 2.000 ale inguru banatu dira eta bertan merkatarietara euskaraz saltzeko behar dituzten baliabideak batu dira, lau ataletan sailkatuta: hiztegia, kartelak, idazkiak eta argibideak.
 - o **Hiztegia:** Euskara-gaztelania / gaztelania-euskara bilaketak egiteko aukera eskaintzen du; arlokako hiztegiak ere inprima daitezke.
 - o **Kartelak:** Batetik kartel bereziak aurkituko dira, neurri berezikoak, eta bestetik kartel orokorrak, gehien erabiltzen direnak eta merkatarietara euren inprimagailuetan inprimatzeko modukoak. Gehien erabiltzen diren karteekin batera kartel mutuak ere sartu dira, nahi den testua idazteko moduan.
 - o **Idazkiak:** Inprimaki-ereduak txertatu dira atal honetan: batetik orokorrak (faktura, emate agiriak...) eta bestetik Gizarte Segurantzza eta INEMekoak.
 - o **Argibideak:** Merkatarietara laguntza behar izanez gero, nora jo dezaketen agertzen da, baita merkatarietara interesgarriak izan daitezkeen esteka batzuk ere.

Web gunea: CDan dagoen informazio guztia sareratu egin da eta parte hartu duten udalerrien web guneetan eta Azkue Fundazioaren web gunean dago ikusgai, merkatarietara eta ostalarietara behar dituzten baliabideak sarean ere izan ditzaten.